

Hilabete honetan Arizmendiarietaren Gogoetak liburutik hartutako esaldiez aparte, COOPERACIÓN aldizkaritik hartutako beste ideia batzuk ere dakarzkigu Elkartasuna, Kooperazioa eta Interkooperazioari buruz. Dakizuenez TU-Lankide aldizkariaren aurretik Cooperación aldizkaritxoaren sortu zuen gure On Jose Mariak.

Elkarte edo komunitate baten irmotasuna eta sendotasuna bertako kideen elkartasun sentimenduaren arabera izango da. GURE KOOPERATIBETAKO KIDEEN EGIAZKO ELKARTASUNA DA KOOPERATIBEN INDARGUNEA. C12-1961/08

Elkartasuna eta zintzotasuna berez dira errentagarriak. p348

Kooperatibismoa onartzea elkartasunean sinestea da eta horretan sinesten duenak jadanik ezin dio mugarik jarri elkartasunaren aplikazio eremuari: giza elkartasuna hartzigarri aktibo eta indartsu bat da, bere aplikazio zirkulua zabaltzen den neurrian multiplikatzen den indar bat. p460

Konstante historikoa da gizakiak, denbora eta hurkoak kontuan hartu barik, bere burua gauzatzeko eta bere helburuak betetzeko duen gaitasun eza. Denbora eta elkartasuna oinarrizko faktoreak dira; ez dira giza sustapenerako eta eraldaketa sozialerako faktore funsgabeak. Uzta biltzeko, erein eta prestatu egin beharra dago; besteei laguntza eskatu ahal izan behar diegu eta, ondorioz, exijitu baino zertxobait gehiago eman behar dugu indartzeko. p419

Lagun diezaiogun elkarri eta egon gaitezen ziur guri ere lagunduko digutela, eta denon artean aurrera egingo dugu. p316

Elkartasuna tarteka edo norberaren iritziaren arabera praktikan jartzea ez da nahikoa elkartasun hori indar eta giza balio bihurtzeko; palanka hautsia da. p332

Norbanakoaren eskubideak bezainbeste edo gehiago zaindu behar dira eskubide komunitarioak. p337

Industria kontzentrazioak ez du oztopo izan behar kostuak murrizteko, enpleguak ziurtatzeko, etab. C8-1961/03

Gure konpromiso kooperatibistak ezin du begien bistatik galdu gizarte ordena berri bat lortzeko xedea. Beraz, ezinbestekoa dugu ahalegina egitea ordena hori gure eraginpeko eremuetan abiarazteko, baldin eta ez badugu molde estuko eta irteerarik gabeko kooperatibismo batean geratu nahi. C27- 1962/11

Gure erakundeen ikuspuntutik, prest egon behar dugu gure independentzia pixka bat galtzeko taldearen onurarako. Lankidetzaren ez da amaitzen gure enpresaren mugetan; aitzitik, gure egituraren berezko eskakizun gisa, ezinbestekoa dugu gure ahalegina besteekin batzea, helburua hobeto lortze aldera. C28- 1962/12

Iruditzen zaigu kooperatiba bat sortzeko asmoa dutenek buruan eduki behar dutela euren ahaleginak beste batzuenarekin uztartzeko aukera badela; izan

ere, oro har, erakunde horiek, oso handiak ez direnez, ez dute arlo ekonomikoan segurtasunez eta indarrez jarduteko beste modurik, eta beharrezkoa dute enpresaren abantailei etekina ateratzea kooperatiba arteko elkarketen bitartez. C46 – 1964/06